

*Irakaslea: Mikel Alberdi*

*Aranzadi Ikastola*

*DBH*

*Ideia-izena: "Gure alkateak"*

## **"IAZ ONDO JOAN ZEN ESPERIENTZIA ETA ERREPIKATU NAHI IZAN DUGU"**

*"Gure alkateak. XXI. mendeko hiria antolatzen"* Bigarren Hezkuntzako ideia irabazlea da (DBH). Proposamen hori Bergarako Aranzadi Ikastolak egin du eta hurrengo urteetan sortu beharreko hiri-motei buruz hausnartzen du, hiri-ingurune berrien exigentziak kontuan hartuz eta herritarrentzako zerbitzu beharrezkoenak identifikatuz.

Mikel Alberdi 18 ikaslek osatutako "Kevin-J" taldearen arduraduna da eta, azaltzen duenez, hau da Kosmodisean parte hartzen duten bigarren urtea. *"Joan den urtean esperientzia oso ondo joan zen eta, horregatik, errepikatzea pentsatu genuen. Bestalde, ekimena oso osatua dela ikusten dugu, lantzen baitira oso desberdinak diren hainbat gai eta alderdi: audioa, argazkiak, bideoa etab."*



- Nola hautatu zenuten irabazle ateratako ideia?

- *Taldeak proposamenak egin zituen, bozketa egin zen eta hortik hiru ideia atera ziren. Lortu beharrekoa zer zen definitu genuenean, ikusi genuen “Gure alkateak...”ek komentatutako aukeretako asko itxuratzeko modua ematen zigula.*

- Zertan datza aurkeztu duzuen ideia?

- *Ikasleen ikuspuntutik begiratuta, herriari zer falta zaion identifikatu nahi dugu, eta zein alderdi hobe daitezkeen ikusi; hartara, uneko beharrianak agerian geratuko dira. Hortik atera zen alkate izanez gero antolatuko genukeen hiria marrazteko ideia.*

- Zuen iritziz, zer da Kosmodiseako proposamenaren interesgarriena?

- *Gaia eta ingurunea oso erakargarriak direla alde batera utzita, interesgarriena da gure proposamena tresna eta programa desberdinekin kontrastatzea.*

